

Durango haur minbiziaren kontrako marea urdina hartzeko prest



Erreportajea - Durangok haur minbiziaren kontrako 'Gu be zuek gara' jaialdi solidarioa hartuko du domeka honetan. Jaia La Cuadri del Hospi elkarteak antolatu du udalaren eta herriko klub, ikastetxe eta elkarteon auzolanagaz. "Super deialdi bat egin gura dugu Durangoko kaleak marea urdin batez betetzeko. Gaingitu dezagun minbizia denok elkarregaz", esan dute. Ekitaldiak 10:00etan hasiko dira, inaugurazioagaz eta ondorengo ibilaldi familiarragaz. Landako Gunean askotariko animazioak egongo dira eguerditik aurrera. • **2-3**



Eta Burdin Aroan Artolan herrixka harresitu bat egon izan balitz?

Abadiño • Aranzadi Zientzia elkarteak miaketa lanak egingo ditu zapatuan, herrixka horren zantzu arkeologikorik ba ote dagoen jakiteko. 11:00etan azalpen dibulgatibo bat emango dute Artolako lepoan bertan. • **10**



Durangaldeko hainbat lagun Cuelgamuros haranean izan da bertako desobiratze lanak ezagutzen

Durangaldea • Cuelgamuros haranean (Espainia) 33.000 hildako daudela uste da. Durangaldeko hainbat lagunak daude, besteak beste Jose Larrañaga elorriarrarenak eta Julen Uribe Usabel berriztarrarenak. Euren senideak Paco Etxeberriak gidatzen dituen desobiratze lanak bisitatzen izan dira. • **8**

Aldapegorak 350 korrikalari batuko ditu bihar Elorrion

Mendi lasterketa • Aurtengo bigarren aldiak hainbat nobedade du. Esaterako, 26 kilometroko lasterketa ez ezik, 15 km-ko beste bat ere egingo dute. • **20**

HOME SCHMIDT HOME



MAIATZAREN 2tik 31ra

UDABERRIKO ESKAINTZAK

%20-ko DESKONTUA ZURE ALTZARIETAN

* Begiratu baldintzak zure Schmidt salazaileran

Aldatzea eta ikusaraztea ezinbestekoa den errealitateari elkartasunez erantzuteko jaialdia

Durangok 'Gu be zuek gara' jaia hartuko du domekan, haur minbiziaren kontrako festa solidarioa. Eguna La Cuadri del Hospi elkarteak antolatu du, herriko eragileen laguntzagaz

ELKARTASUNA • EKAITZ HERRERA

La Cuadri del Hospi elkarteak kideak "irrikaz eta kabitu ezinik" daude. Gogotsu eta aldi berean urduri, domeka ailegatzeko. "Azken finean, hau guzti hau besteengan pentsaturiko jai bat da, eta espektatiba handia dugu. Etorriko diren denek *Gu be zuek gara* jaialdiak berezkoa duen zer hori sentitu dezaten gura dugu", azaldu du Susana del Amo La Cuadri del Hospi elkarteak kide durangarrak. Antolatzaileek eta herriko elkarteek dena prest dute Durango haur minbiziaren kontrako marea urdin batez betetzeko. Bai elkartasuna adierazteko, eta baita gogorra den errealitate baten aurrean alaitasun izpi bat eraikitze ere. "Elkarbizitzan oinarrituriko jaia izango da, aldatzea eta ikusaraztea gura dugun errealitate bat modu positibo batean bizitzea helburu duena. Izan ere, unerik txarrean zaudenean, bizitzaren muga-muga horretan zaudenean, badira une alaiak ere. Eta hori guzti hori biziarazi gura dugu domekako jaialdian. Bizilagunekin, herritarrekin batuta, presarik barik, elkarri zelaz gauden galdetuta. Zergaitik? Minbiziaren inguruko diagnostiko bat duzunean, jendea ez delako zuri horri buruz galdetzera ausartzen. Goazen berba egitera, gaia naturalizatzen, azaldu du Susana del Amok.

La Cuadri del Hospi Gunea

Jaialdian baturiko dirua funtsezkoa izango da La Cuadri del Hospi Gurutzetako ospitalearen ondoan duen lokala martxan mantentzeko. Elkarteak minbizia duten umeentzat eta euren gurasoentzat prestaturiko eremu bat du han, tratamendu onkologikoan dauden umeen egunerokotasuna eramangarriagoa izaten laguntzeko. Eremu horri eskerrak, umeek eta gurasoek hartu-eman zuzena izan dezakete tratamenduak bizimodu arrunt bat egitea eta kalean ohikoak diren eremuetan egoteko aukera eragozten dienean. "Adibidez, umeek eta gurasoek elkarregaz gosaldut

zakete bertan. Izan ere, segun eta umea zein egoeratan dagoen, ez duzu kafetegi arrunt batera sartzeko aukerarik. Horrez gainera, umeentzako ekintzak gauzatzen dira eremu horretan, aktibitateak. Eta eskolak ere ematen dira", deskribatu du del Amok. Era berean, umeek minbiziaren kontrako tratamendua jaso eta gero iza-

Baturiko dirua ikerketara eta La Cuadri del Hospi Gunea finantzatzera bideratuko dute

ten dituzten bestelako zerbitzuak hornitzeko baliatuko dute baturiko dirua. "Fisioterapia lantzeko edo tratamenduak eragindako arreta-defizita psikologoei lantzeko", adibidez. "Berdin-berdin Gurutzetako ospitalea dekoratzen jarraitzeko. Txikikeria bat dirudi, baina umeentzat izugarria da gela onkologikoak globoflexiazko artelanekin dekoratuta ikustea. Haien momentu inportantea da", gaineratu du del Amok.

Gaia "naturalizatzea"

Osakidetza aurtengo otsailean kaleratu zuen haur minbiziaren inguruko estatistika berria. Datu horien arabera, gaur egun minbizia duten umeen %80k aurrera egiten dute; gainerako %20 ak ez. Diagnostikoen ia erdiak leuzemiari loturikoak izaten dira (%47), eta nerbio sistematan eraturiko tumoreak izaten dira kausen artean bigarrena (%15). "Baina egoera hori zuri egokitzen zaizunean, zer ardura dizu horrek guzti horrek?", galdetzen du del Amok. "Zuretzat %100 da jokoan dagoena. Dena", dio. La Cuadri del Hospien sorreran parte hartu zuten bost umeetatik hiru hil egin ziren, zoritxarrez. Del Amoren semea izan zen euren arteko bat. "Arazoa barrutik bizi duzunean dena naturalizatzen duzu. Mugan bizitze horrek zaramatza gaia naturalizatzen. La Cuadri del Hospi esku hartzen dugunok ez



'Gu be zuek gara' jaialdiaren aurreko edizioa Barakaldon ospatu zuten, 2022an. LA CUADRI DEL HOSPI



La Cuadri del Hospi elkartearen sortzaileak. LA CUADRI DEL HOSPI

Minbizia duten umeen %80k aurrera egiten dute, "baina zuri tokatzean, %100 da zuretzat"

genuen aurretiazko hartu-emanik minbiziagaz. Baina tokatu egin zitzaigun. Eta guk, zorionez, inguru atsegin bat sortu genuen gaia lantzeko, baina asko dira aukera hori izan ez dutenak. Beraz, goazen hezur-muina dohaintzan emateari buruz berba egitera, goazen hezurak dohaintzan emateari buruz berba egitera", animatu du del Amok. Alde horretatik, azpi-

marratu du La Cuadri del Hospi minbiziaren kontrako ikerketara ere bideratzen dituela funtsak.

Denentzako jaia

Jaialdian doan egun horretarako propio salgai ipini diren kamiseta urdinak erosita topatuko du kausa solidarioari laguntzeko modua. Berdin Landako Gunearen bueltan egingo diren ekintzetan parte hartuta eta txosnetan kontsumituta. Denak balio du komunitate horren zati izateko, eta haur minbiziaren errealitatea bizitzea tokatu ez zaionari perspektiba berriak emateko. "Izan ere, La Cuadri del Hospi elkarteak osatzen duten gura-

so eta umeengandik harago doan zerbait da. Lagundu gura duen edo elkarregaz esku hartu gura duen edonor da La Cuadri del Hospi. Kamiseta erosten duena zein laguntza ematen diguna. Daudenak eta jadanik gure artean ez daudenak. Ez daudenak ere jaian egongo direlako, eta hori ere badelako mina arintzeko modu bat", dio del Amok. Gonbitea argia da. Durangoko kaleak eta Landako Gunearen inguruak prest daude herritar guztientzat den marea urdin solidarioa sortzeko. Esloganak ondotoxio dioten moduan, *Gu be zuek gara* hori ikusarazteko, eta elkartasun izpiak sortzeko.

Herri oso baten auzolan eta borondaterik onenagaz antolaturiko egunpasa

EGITARAUA - EKAITZ HERRERA

La Cuadri del Hospik azaroan ekin zion Durangon *Gu be zuek gara* jaialdia antolatzeari. Udaletik ekin zion bideari, udalaren eta herriko elkarte, klub, ikastetxe eta eragile bakoitzaren inplikazioa lagun. Ordutik hona, herriko eragileek makina bat ekitaldi so-

lidario egin dute. Batzuek otzarak zotz egin dituzte, beste hainbatek kontzertu solidarioak egin ditu, eta denek marea urdina osatu ahal izateko kamiseta solidarioak saldu dituzte. Orain, domekakoaz gozatzea eta haur minbiziaren kontrako jarrera lantzeko ordua heldu da. Honako hauek izango

dira domekako jaialdiko ekin-tzak:

Inaugurazio ekitaldia 10:00etan izango da. La Cuadri del Hospi elkarteak Barakaldoko alkateari egingo dio harrera, Eusko Trenen geltokian. Alkateak *Gu be zuek gara* jaialdiaren lekukoa pasatuko dio Mireia Elkoroiribe

Durangoko alkateari (2022an Barakaldo izan zen jaialdiko anfitrioi).

10:30ean ibilbide familiarra-ri ekingo diote, herriko kirol klubek gidatuta eta Durangoko Musika Eskolako bandak, Tabira Musika Bandak, Batukandrak eta txistulariek lagunduta. Martxak ikasleak, senideak eta lagunak jasoko ditu ikaste-txeetan, hurrenkera honetan: Nevers, Maristak, Frai Juan Zumarraga, Zabalarra, Kurutziaga, Ibaizabal, San Antonio, Jesuitak eta Landako. Ikastetxe bakoitza izango da martxaren buru, pankarta bat, urrezko globo handi bat eta minbizia duten haur eta nerabeen omenezko landare sinbolikoak eramanda.

11:30ean Herri Maite Akordeoi Taldeak giroa berotzeari ekingo dio Landako Gunean. Izan ere, ikastetxeak 12:00 aldera ailegatuko dira gutxi gorabehera erakustazokara. Bertaratzen direnean, eskuan ekarritako landareak landatuko dituzte gingko biloba zuhaitza-ren ondoan. Segidan, La Cuadri del Hospi elkarteak ongietorria eta esker emate ekitaldia hasiko ditu, L'Atelier dantza eskolaren

aurrekuagaz eta animazioa-gaz.

Jaiak La Cuadri del Hospiren denda solidarioa eta txosnak zabaldua egingo du aurrera. Bertan eskainiko duten jatekoa eta edatekoa herriko tabernek, jatetxeek eta saltokiek eman dute dohaintzan.

12:00 eta 16:00 artean, ile-mozketa solidarioak, tonbo-la, zozketak eta umeentzako tailerrak egongo dira. Ile-mozketa solidarioak herriko ile-apaintzaileek egingo dituzte. Tonbolan zozkatuko dena herriko saltokien dohaintzak izango dira. Globo Feroz taldeak globoflexia tailerra eskainiko du, eta Oier magoak, berriz, magia erakustaldia. Puzgarriak ere egongo dira, eta baita Durangoko aisialdi taldeek eskainitako eskulan eta aurpegi-margoketa tailerrak.

12:00-19:30etan musika egongo da. Hainbat taldek eguna girotzeko musika kontzertuak eskainiko dituzte: Nonbait, Gehi zapi, Bart sax, Ibai Etxebarria, Goazen telesaileko Ander Lacalle (Luken) eta Nerea Elizalde (Garazi), Iñaki Etxezarraga *Etxe*, Akerbeltz eta Lehiotan bertan izango dira.



Durangoko eragile ugari batu da jaialdi solidarioa. Besteak beste, Landako Eskola. LA CUADRI DEL HOSPI

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKO
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA, KOOP. E.

Goi Mailako Heziketa Zikloak

- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrial
- Automatizazio eta Robotika Industrial

Espezializazio ikastaroa

- Industria Mantentzearen Digitalizazioa
- Eragiketa - Teknologikoen inguruneetan zibersegurtasuna

mondragon.edu/lanbideheziketa


Oñati gestio heziketa

Goi Mailako Heziketa Zikloak

- Salmenten Kudeaketa
- Administrazioa eta Finantzak

IZEN-EMATEA

**Maiatzak
6tik 24ra**



MGEP: 664298683//664298704

OÑATI GESTIO HEZIKETA: 943718009

Durangoko udal ordezkariak Montevideon izan dira, hiri bien lankidetzaz sendotzen

Bidaia ofiziala maiatzaren 3tik 8ra egin dute. Arlo kultural eta ekonomikoak landu dituzte



Durangoko udal ordezkariak Montevideoko instituzioetako kideekin.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udaleko ordezkari politiko bat Uruguai hiriburuan izan da bidaia ofizialean, hiri bien arteko hartu-eman kultural eta ekonomikoak sendotzeko. Hain zuzen ere, bisita honek bat egiten du Bruno Maurizio Zabala durangarrak Montevideo sortu zueneko hirugarren mendeurrenagaz. Honako hauek parte hartu dute bidaia ofizialean: Mireia Elkororibe alkateak, Arantza Barrenetxea zinegotziak (EAJ), Jessica Ruiz alkateordeak (PSE-EE), Iker Urkiza zinegotziak (EH Bildu), Jorge Varela

zinegotziak (Herriaren Eskubidea) eta Carlos García zinegotziak (PP). Bidaia artean, Veronica Redondo udaleko migrazio teknikaria ere izan da.

Udaletik azaldu dutenez, bidaia ofizialaren helburua ez da hiri bien arteko loturak sendotzera mugatzen. Kultura, ekonomia, turismoan eta tokiko garapenean elkarlanean aritzeko bide berriak urratzen hasi gura izan dute. Egonaldian zehar hainbat izan dira eratu dituzten hartu-emanak. Besteak beste, Casavalle Tokiko Ekonomia Garapenerako Zen-

troa, Montevideoko Industria-Cerro Parke Teknologikoa, Jauregi Legegilea, eta Turismorako eta Kulturarako MGB aholku batzordea bisitatu dituzte.

Durango eta Montevideo 2022ko irailean sinatu zuten alde bien arteko senidetzea. Urte hartan uruguaiarrak etorri ziren Durangora, Montevideoko Departamentuko Batzordeko Sofia Espillar presidentea buru. Udaletxean sinatze ekitaldia egin zuten, eta Montevideo kalean senidetzaren omenezko plaka ipini zuten.

24 bizikleta baino gehiagorentzako aparkaleku itxia egingo dute Durangon

BiziPark aparkalekuak sarbideak kontrolatzeko sistema eta kamera bidezko zaintza sistema izango ditu

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango bizikletentzako aparkaleku itxi bat izango du laster garraio publikoetako geltokien ondoan. Oraingoz ez dute azpiegitura instalatzeko datarik zehaztu, baina udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak aparkaleku segurua egitea adostu dute. Alde biek mugikortasun iraunkorra sustatzeko hitzarmena sinatu dute orain egun gutxi. Aparkaleku itxiak 24 bizikleta baino gehiago gordetzeko lekua eskainiko du, eta, segurtasuna

bermatze aldera, sarrera-irteerak kontrolatzeko sistema eta udaltzaingoagaz konektaturiko kamera bidezko zaintza sistema izango ditu. Hitzarmenean jaso dutenez, Foru Aldundiak 60.000 euro ipiniko ditu aipaturiko lanak egiteko.

Durangoaz gainera, Abadiñon ere antzera bateko azpiegitura inauguratuko dute laster. Gordailua Traña-Matienako tren geltokiaren ondoan dago. Aurreikuspenen arabera, laster inauguratuko dute.



Abadiñoko BiziParka eraikita dago eta Durangokoa antzerakoa izango da.

Umeentzako jolasak, kalejira eta 'Ni eta Nitarrak' antzerki obra Berbaroren 35. urteurrenean

Maiatzaren 31n, Plateruena Kultur Aterpea Durangoko euskaltzaleekin bete gura dute

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Orain egun batzuk iragarri zuten urteurrenerako leloa eta asteon publikatu dute egitarau osoa. Berbarok bere komunitate guztiari begirako eskaintza prestatu du 35. urteurrena ospatzeko. Plateruenean

egin ditzuten ekintza guztiak. Honako hauek: umeentzako serigrafia eta txapa tailerra (18:00etan), Iholdi Beristain aktoreak jokaturiko *Ni eta Nitarrak!* obra (20:00), *Bagara nor* ekitaldia (20:45) eta Alde Zaharreko trikipotea (21:00). "Ehunka izan gara

Berbaroren proiektuaren alde egin dugunak, ekimenetan parte hartu dugunak, hezitzaile modura ibili garenak... Horiek guztiak elkartu eta Berbaroren 35. urteurrena ospatzeko eguna izango da maiatzaren 31", azaldu dute elkartetik.



Berbaro euskara elkarte kideak 2024 hasieran.

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

2024ko maiatzaren 10a
22. urtea - 978. alea

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretzi Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Domeka eguerdian Juan Bilbao dultzaineroa omenduko dute

'Gureak gogoan, katea ez hausteko' ekimenagaz Bizkaiko dultzaineroak gogoratzeko aurten egingo diren omenaldietako lehenengoa izango da Mañarikoa



Juan Bilbao dultzaina jotzen, lurretako emanaldi batean. JOSE JAVIER ABASOÑO 'TILIÑO'

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO
Mañariko Aste Kulturalan Juan Bilbao dultzainero mañariarra omenduko dute domekan. Kalejira bategaz hasiko dute eguna, 10:30ean. Ondoren, Ondalan taldeko erraldoiekin bigarren kalejira bat izango da. 12:30ean baltseorako tartea hartuko dute, eta 13:00etan omenaldi ekitaldia hasiko da.

Juan Bilbao Ortuoste 1905ean jaio zen, Mañariko Ortuoste auzoan. Autodidakta izan zen eta bere anaia Manuelen pausoei jarraituta dultzaina jotzen ikasi zuen. Anaia 1922an hil zen, Melillan, eta dultzaina etxera bidali ziotenean bera geratu zen musika tresnagaz. Urte askoan Fermin Ortuoste lehengusuagaz batera jo zuen. Denbora batez erretiroa hartu eta gero, 70eko hamarkadan berriro ekin zion jotzeari. Zahargaztiekin musika taldea ere sortu zuen, beste lagun batzuekin. 1991n hil zen.

Aste Kulturalan ekimen gehiago ere badago. Esaterako, gaur Porrotxen eta Marimototsen ikuskizuna dago, 18:00etan, eta Kuttune taldearen kontzertua, 21:30ean.

Río de Oro boluntario bila dabil Izurtzan egongo diren ume sahararrei laguntzeko

Boluntarioek aste bateko edo biko txandak egin ditzakete, uztailaren hasieratik abuztuaren amaierara

IZURTZA • J.D.
Uztailean, aniztasun funtzionala duten 11 ume saharar etorriko dira Izurtzako aterpetxera, uda pasatzera. Río de Oro egonaldia prestatzeko lanetan dabil eta boluntarioen taldean izena emateko epea zabaldu du. Elkartetik azaldu dutenez, boluntarioek

aste bateko edo biko txandak egin ahal izango dituzte, uztailaren hasieratik abuztuaren amaierara. Egunean zehar askotariko jarduerak egingo dituzte aterpetxean bertan zein handik kanpora. Izena emateko, riodeorodurango.com web ataria kontsultatu daiteke.



Aurten, aniztasun funtzionala duten 11 ume saharar etorriko dira Izurtzako aterpetxera.



Udalekuak bi-hiru urtetik hamabira arteko umeei zuzenduta daude.

Hasi dute Atxondoko udalekuetarako izen ematea

Aurtengo udalekuak ekainaren 24tik uztailaren 26ra izango dira; izen ematea ekainaren 2ra arte dago zabalik

ATXONDO • J.D.
Atxondoko udalekuak ekainaren 24tik uztailaren 26ra izango dira aurten. Eurretan parte hartu gura dutenentzako izen ematea asteon hasi dute eta ekainaren 2ra bitartean egongo da zabalik. Izen ematerako orria ludotekan jaso daiteke. Prezioa 45 euro da asteko.

Leku mugatuak daude eta herrian erroldaturikoek lehentasuna izango dutela jakinarazi dute antolatzaileek.
Udalekuak 2-3 urtetik hasi eta 12 urtera arteko umeei zuzenduta egongo dira eta Atxondoko eskolan egingo dituzte, astelehenetik barikura.

Uztabarritzen bertso zirkuitua Arrazolara helduko da zapatuan

Iruri Altzerreka, Erika Lagoma eta Ander Elorriaga bertsolariek parte hartuko dute saioan, Amillen

ATXONDO • J.D.
Uztabarritzen bertso zirkuituak Arrazolan du hurrengo saioa. Zapatu honetan izango da, 18:00etan, Arrazolako Amillena bentan. Lau bertsolari arituko dira bertsotan: Iruri Altzerreka, Erika Lagoma, Ander Elorriaga eta Julio Soto. Ainhoa Urienek egingo ditu gai jartzaile lanak.

Uztabarritzen egiteasmoko lau saio egin dituzte apiriletik hona, eskualdeko beste hainbeste herritan, eta Arrazolako bosgarrena izango dela azaldu dute antolatzaileek. Arrazola-koaren ondoren, saio bakarra geratuko da aurtengo zirkuitua amaitzeko, maiatzaren 17an Zaldibarren egingo dena.

Asuntze mendi taldeak Baztanerako asteburu-pasa antolatu du ekainerako

Maiatzaren 15a izango da azken eguna izena emateko

ATXONDO • J.D.
Asuntze mendi taldeak asteburu-pasa antolatu du ekainaren 8rako eta 9rako. Zapatuan Alkurruntz mendia igo eta Lekarozko aterpetxean lo egingo dute.

Domekan Leurtzeko urtegitik Soro ttipia mendira joango dira. Izen ematea asuntzemk@hotmail.com helbide elektronikoan egin daiteke, maiatzaren 15era arte, 30 euroan.

Otxandiok 64.000 euroko laguntza jaso du Aldunditik argiteria aldatzeko

OTXANDIO • AITZIBER BASAURI
Otxandioko Udalak herriko argiteria publikoa aldatuko du aurten, eta, horretarako, 95.000 euroko diru partida du lotuta udal aurrekontuan. Inbertsio horri aurre egiten lagunduko du Bizkaiko Foru Aldunditik herrian dauden boladun farolak al-

Herrian dauden 143 boladun farolak aldatuko dituzte, efizientzia energetikoa hobetzeko

datu eta efizientzia energetikoa hobetzeko jasoriko 64.000 euroko diru laguntzak. Guztira, 143 farola ordezkatuko dituzte.

Argiteria publiko guztia aldatu ondoren, urtean 57.281 kWh gutxiago kontsumituko dituzte, eta 28,64t CO2 gutxiago isuriko da, udal arduradunek azaldu dutenez. Horrela, 14.320 euro aurreztuko dituzte.

Gremioen gida



 Zurgintza

leike

Eraberritzeak
Interiorismoa
Aroztegia

NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leike.eus

Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

 Zurgintza

ATERPE AROTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

 Iturgintza


Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

 Iturgintza

 **UNAI GARAY**
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

 Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

 Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com

Durangaldeko hainbat lagun Cuelgamuros haranean egon dira euren senideen desobiratze lanak bertatik bertara jarraitzeko

Paco Etxeberria auzi medikua buru duen taldeak urte bi daramatza desobiratzen lanetan Erorien Harana lez ezagutzen zen eremuan



Aitor Aristegi, Paco Etxeberria eta Jesus Aristegi, Cuelgamurosen.

ELORRIO • ARITZ MALDONADO

Paco Etxeberria auzi medikua buru duen lantaldeak urte bi inguru daramatza Madrilgo Cuelgamuros haranean (2022an horrela izendatu zuten Erorien Harana) desobiratze lanetan. Oraitsutik, bertan dauden senideek gunea bisitatu dezakete, eskatuz gero. Jesus Aristegi elorriarra bertan izan zen astelehenean, Aitor anaiagaz batera. Han daude osaba zuten Jose Larrañagaren gorpuzkiak. "Egoera penagarrian egon da urteetan. Orain urte bi ezin zen bisitarik egin, eta orain, oster, neurri zorrotzekin bada ere, bisitatu daiteke", azaldu du Jesusek. "Makina bat ipini dute hezetasuna kentzeko, eta kamerak ere bai, babesteko; horrez gainera, bisitariak buzua eta maskarak ipini behar dituzte ingurua ez kutsatzeko. Kutzak bata bestearen gainean daude pilatuta, eta guztiz kolapsatua dago gunea", gaineratu du. Senideek hiruko taldetan egiten dituzte bisitak, eta Aristegiren kasuan Bartzelonako eta Zaragozako beste familia biko kideekin egin zuten bisita. Jose Larrañaga Gandesako frontean hil zuten, 1938an, Gandesan (Tarragona, Herrialde Katalanak). "Gure kasuan, itxarotea dagokigu orain, baina esan digute oso gatxa izango dela. Lantaldeak oraindino hainbat

zailtasun du lan egiteko, eta horri baliabide falta gehitu behar zaio", nabarmendu du Aristegik. Cuelgamurosen 33.000 hildako baino gehiago dagoela uste da, eta senitartekoen gorpuzkiak itzultzeko 166 eskaera daude. Aristegik eskaera horiek duten garrantzia nabarmendu du: "Durangaldeko zenbait bizilagunen gorpuzkiak daude han, lau elorriarrenak, berrihtar batenak eta garaitar batenak, gutxienez". Julen Uribe Usabel berrihtarra da eurretatik bat. Haren senideak ere Cuelgamurosen izan ziren, orain aste bi. Maite Aristegi arreba haxe azpimarratu du: "Garrantzitsua da gorpuzkiak itzultzeko eskaerak egitea eta memoria historikoaz berba egitea. 87 urte pasatu dira gertakari horietatik, eta 47, berez, demokrazia ezarri zenetik, eta begira zelan gabiltzan oraindino". Bergaran (Gipuzkoa) bizi da bera, baina nebagaz batera dabil komunikabideekin jardunean, gaiari oihartzuna emateko asmoz. "Familiarentzat garrantzitsua da memoria historikoaren gaia, oraindino zauri bat itxi barik dago eta. Esan dugun moduan, gure kasuan itxarotea dagokigu, baina uste da Euskal Herriko 3.000 lagunen gorpuzkiak daudela bertan".

Zornotzako hobiko lehenengo gorpuzkiak entregatuko dizkiote familiari

Memoria Historikoaren Astea egingo dute Zornotzan maiatzaren 13tik 19ra bitartean; astelehenean ekitaldia egingo dute senideekin batera, Zelaieta zentroan, 18:00etan

ZORNOTZA • ARITZ MALDONADO

Astelehenean Memoria Historikoaren asteari ekingo diote ekitaldi batez. Zornotzako hilerriko hobian identifikaturiko lehenengo pertsonaren gorpuzkiak entregatuko dizkiote haren familiari. Ekitaldi horretan, besteak beste, Nerea Melgosa sailburuak, Ainhoa Salterain Zornotzako alkatea eta desobiratze lanen arduraduna den Lourdes Herrastik parte hartuko dute. "Gure memoria historikoaren babesa, iragana gogoratzeko ez ezik, etorkizuna eraikitzeko dugun erantzukizuna ere bada", nabarmendu du Salterainek. Datorren asteko ekitaldietan *Ikusezinak* dokumentala estreinatuko dute.



Zornotzako hilerriko desobiratze lanak.

Berrizko Nagusien Etxeko dinamizazioa, lizitaziora

Prebentziozko jarduerak eta ikastaro soziokulturalak antolatzeaz gainera, taberna kudeatu beharko dute

BERRIZ • A.M.

Berrizko Udalak lizitaziora atera du Nagusien Etxea dinamizatzeko zerbitzua emateko kontratua, 73.340 euroko zenbatekoagaz (BEZ barik). Udalak aurreikusten duen gauzatze epea urtebetekoa izango da, eta beste hiru urtez luzatu ahal izango da, gehienez. Kontratuaren arabera, zentroa osorik kudeatuko da, hau da, jarduera eta tailer soziokulturalak koordinatu eta antolatu beharko dira, eta tabernako zerbitzua eskaini. "Funtzio anitzeko espazio bat da, erabiltzaileei aukera ematen diena, besteak beste, gizarte eta hartu-eman beharizaneirantzuteko", argitu dute.



Berrizko Nagusien Etxea.

ANBOTON ESKELAK IPINTZEKO NEURRIAK ETA PREZIOAK

Eskelak eta oroigarriak paperean

Izena Abizena Abizena Iurretan hil zen, 2023 ko apirilaren 13an, 85 urte zituela Testua / olerkia Familiakoak	Izena Abizena Abizena Iurretan hil zen, 2023 ko apirilaren 13an, 85 urte zituela Testua / olerkia Familiakoak
2x2 modulo <u>Prezioa</u> Paperean edo webgunean 75 € Anbotokideek 65 € Paperean + webgunean 115 € Anbotokideek 105 €	3x2 modulo <u>Prezioa</u> Paperean edo webgunean 110 € Anbotokideek 100 € Paperean + webgunean 150 € Anbotokideek 130 €

Eskelak webgunean

ESKELA Izena Abizena Abizena DURANGO 2022ko maiatzaren 30ean hil zen.	ESKELA Izena Abizena Abizena Testua /Olerkia Durango, 2022ko maiatzaren 30ean
---	---

Eskelak ipintzeko moduak:

- Anbotoren bitartez: **946 810 658** telefono zenbakira deituta edo **anboto@anboto.org**-ra idatzita
- Anbotoko bulegora etorrira: Bixente Kapanaga, 9 behea
- Ehorztetxearen bitartez

Eguazteneko 14:30ak arte jasoko dugu informazioa.

anboto
kide

Anbotokideen
txokoa


MAIATZEKO ZOZKETAK



Arima Basque Brand arropa dendan gastatzeko 65 €-ko bonoa.



Etxera eramateko eguneko menu bat **Basaren** eskutik.



Xiberu tabernan bi gosari bikoitz. Zornotza.

Okm:

batzen gaituen distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

Egin zaitez Anbotokide eta parte hartu gure zozketetan!



ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Eta Burdin Aroan Astxiki eta Alluitz mendien artean herrixka bat egon izan balitz? Bada, galdera horri erantzuteko, Aranzadik ikerketak egingo ditu zapatu honetan. Zientzia elkarteak miaketa lanak egingo ditu herrixka baten zantzu arkeologikorik agertzen ote den ikusteko eta kontserbatu litezkeen egiturak dokumentatzeko. Hipotesiaren oinarriak aspaldikoak dira. Blas Taracena eta Augusto Fernandez de Aviles arkeologoak izan ziren lehenengoak aukera hori mahai gainean ipintzen: harresien azpialdean kokatu ohi den lur zati aldapatsua identifikatu zuten, ezpona bat. Garai hartako zundaketek ez zuten herrixkaren emaitzarik azaleratu, baina Javier Gorrochategui eta Maria Jose Yarritu arkeologoen Burdin Aroko *kastro* modura identifikatu zuten ingurua, sasoi hartako herri harresitu modura. Gero, 1994an, Armando Llamosas eta Dona Gil arkeologoen kata bat egin zuten ezpona izan zitekeen lekuan, eta horregaz behin betiko utzi zen albo batera behinola Artolan Burdin Aroko herrixka egon ote zen hipotesia.

Zalantzak 2014an sortu ziren berriro, Aranzadiko Pedro eta Mikel Argandoña anaiek lepo-ale bat, harrizko leuntzaile bat eta

Artolako lepoan Burdin Aroko herri harresiturik ba ote zegoen aztertuko du Aranzadik

Zapatuan azalpenak emango dituzte Artolan, 11:00etan. Alluitz Mendi taldeak mendi irteera prestatu du Artolara joateko. 10:00etan ekingo diote txangoari, Atxarteko ermitatik



eskuz eginiko zeramikak topatu zituztenean. Orain, Aranzadikoen ustez, "gutxieneko oinarria dago Artolan Burdin Aroko herri harresitu bat egon zela" pentsatzeko berriro.

Aranzadik zapatu honetan ekingo du miaketa, maiatzak 11.

Teknikari talde bat bertan egongo da lanean, hamabost pertsonen osaturiko boluntario talde batez. Herritarrek bertatik bertara ezagutuko dute zer lan egingo duten, eta zelan. 11:00etan azalpenak emango dituzte, Artolan bertan.

Gerbasen kalejiragaz emango diete hasiera santrokazei

Maiatzaren 12tik 25era ospatuko dituzte jaiak Abadiñon

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Gerbasen kalejiragaz eta dantzarien urteroko saioagaz emango diete hasiera San Trokaz jaiei, domekan. 19:00etan irtengo dira txistulariekin kalejiran, eta gero dantzariak azken entsegua egingo dute. Aurretik baina, goizean, hileroko azoka egongo da, eta arratsaldean, 16:30ean, kadete mailako San Prudentzio-San Trokaz esku pilota txapelketako fina-

lerdiak jokatu dituzte. Aurten-go jaietarako ere egitarau zabala antolatu dute Abadiñon, eta gustu eta adin guztietarako ekintzak egongo dira. Umeentzako disko-dantza eta jokoak, artisautza azoka eta txirrindulari irteera, besteak beste.

Musikari dagokionez, kontzertu erakargarriak egongo dira: J. Martina, Su Ta Gar, Garraio, Katu eta Bengo, besteak beste.



Dantzarien saio bateko argazkia.

Inork ere ez ditu asmatu Mallabiko 'Ez Esan!' lehiaketako apirileko galdera guztiak

MALLABIA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Mallabiko Berbalagunek eta udalak Mallabiari buruzko *Ez Esan!* galdera-erantzunen jokoa hasi zuten otsailean. Lehiaketa honen helburuak euskara sustatzea eta herriko kontuak ezaugaraztea ziren. Harrezkero, hilero galdera sorta bat kaleratu

Final handirako apirileko irabazleak zozketa bidez aukeratu dituztela diote antolatzaileek

izan dute, eta hilero asmatzaileen artean irabazle bi aukeratu dituzte final handirako.

Baina apirilean parte hartzaile bakar batek ere ez ditu galdera guztiak asmatu. Hori horrela, apirileko irabazleak zozketa baten bitartez aukeratu dituzte.

Iurretako Euskal Kataforaesis enpresan akordioa lortu dute

Lan hitzarmen kolektiboa jarriko da indarrean, langileek eskatu duten moduan. Eguaztenean akordio bat lortu ondoren, bertan behera utzi zituzten mobilizazioak

IURRETA • AITZIBER BASAURI
Iurretako Euskal Kataforaesis enpresan akordio bat lortu zuten eguaztenean. Hartara, bertan behera geratu ziren atzoko eta gaurko deituriko greba deialdiak. Enpresa batzordetik azaldu dutenez, indarrean dagoen Enpresa Ituna Enpresa Lan Hitzarmen Kolektiboa bihurtzea adostu dute zuzendaritzagaz, hiru urtez indarrean egongo dena (2024tik 2026ra). Era

berean, langileei soldata igoko zaie: 2024an %9; 2025ean %3,150 eta aurtengo KPIaren erdia; eta 2026an %3,150 eta aurtengo KPIaren beste erdia. Enpresa batzordearen beste zenbait proposamen aztertzea ere adostu dute. Besteak beste, 2025eko eta 2026ko KPIak gaurkotzea eskatu dute, atzerapenik barik; eta baimenak gaurkotzea, plusak erregularizatzea edo lanpostuak eta mailak aztertzea.

Hitzarmena eztabaidagai
Arriandiko industrialdean dagoen enpresan hiru greba egunera deitu zuten lan hitzarmena berriztu zedin eskatzeko. Kimika industriarako Espainiako estatuko hitzarmena izan dute orain arte, eta 2019tik ez da berriztu, LAB sindikatutik argitu dutenez. Enpresako 66 behar-ginetatik 61ek bat egin dute grebagaz.



Euskal Kataforaesis enpresako langileek greba egin zuten maiatzaren 6an.



Smurfit Kappako ordezkariak eta Iurretako, Durangoko eta Zornotzako alkateak.

Ateak zabaltzeko eguna, Iurretako Smurfit Kappa enpresan

300 lagunetik gora joan ziren XI. Segurtasunaren eta Osasunaren Astearen barruan eginiko jardunaldira

IURRETA • AITZIBER BASAURI
Iurretako Smurfit Kappa Nervion enpresak XI. Segurtasunaren eta Osasunaren Astea antolatu du, Lan Osasunaren Nazioarteko Egunagaz bat eginda. Langileei zuzenduriko egitaraua prestatu dute, eta horren barruan, ateak zabaltzeko jardunaldia ere egin zuten, apirilaren 27an. Lantokiaren prozesu produktiboa erakutsi zuten

bisita gidatuen bitartez. "Jasangarritasunean egindako inbertsioak ezagutzeko aukera izan zuten, eta paper-hondakinen balorazio eta kudeaketarako azpiegitura berria ikusi zuten", enpresako arduradunek azaldu dutenez. 300 lagunetik gora bertaratu ziren ekitaldira. Horien artean, Iurretako, Durangoko eta Zornotzako alkateak ere egon ziren.

Giro bikaina Garaiko eta Lantziegoko herrien senidetzea berritzeko egunean

GARAI • EKAITZ HERRERA
2013an senidetu ziren eta ordutik hona udalerrri biek elkarren arteko senidetzea berriitu dute urtero-urtero, izurri garaian salbu. Iaz garaitarrak joan ziren Lantziegora, eta aurrean arabarrek bueltatu dute bisita. Joan zen zapatuan berriitu zuten senidetzea, giro ezin hobean. Momoitioko San Juanen egindako harreratik hasita, lantziegarrek Garaiko ondarea ezagutu eta he-

rriko leku esanguratsuak bisitatu zituzten goizean zehar. Eguerdipartean herri bazkaria egin zuten denek elkarregaz, herriko plazan. Datorren urtean garaitarrak joango dira Arabako Errioxako udalerrira.
Garain badaude udalerrri bien arteko lotura erakusten duten sinboloak. San Migel elizaren azpialdeko aldatsean arte bat, mahasti bat eta mugarri bat daude.



Herri bietako bizilagunak San Juan Momoition eginiko argazkian.

PRO

Lan bide HEZIKETA

AURREMATRIKULA

Maiatzaren 6tik 24era

IZENA EMAN!

www.arizmendi.eus

Gizarte eta kirol animazioaren irakaskuntza
GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

Osasun larrialdiak
ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

Mikroinformatika sistemak eta sareak
ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

Erizaintzako zaintza osagarriak
ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

Oinarrizko Lanbide Heziketa
• SUKALDARITZA
• ETXEBIZITZA MANTENTZE LANAK

Hamaiketako osasungarriak maiatzean Iurretan, Berrizen, Elorrioren eta Zaldibarren

Berton Bertokoa taldearen eskutik, maiatzean hamaiketako osasuntsuak emango dituzte eskualdeko hainbat ikastetxetan

DURANGALDEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Hile honetan zehar, eskualdeko hainbat ikastetxetan hamaiketako osasungarriak emango dizkiete ikasleei. Iurretako, Berrizko, Elorrioko eta Zaldibarreko ikastetxe publikoetako guraso elkarteek antolatu dute ekimena, Berton Bertokoa taldeagaz eta Durangaldeko ekoizleen Etarte

eta Anbotopeko elkarteekin batera. Ekimen honegaz, ikastetxe bakoitzean astebetez 925 umeri emango diete hamaiketako osasuntsua.
Hamaiketako osasungarri hauek ordaintzeko, Berton Bertokoa taldeak Gabonetan egindako errifagaz lorturiko dirua erabiliko dutela azaldu dute.



Hamaiketako Osasungarriak programa Atxondon egiten dabilta.

Politikan

Paule Sanchez
Arieta-Araunabeña
Errugbia



Euskara gehiago entzun nahi dut

Erronkei aurre egiteko helburuak definitu behar direla diote, helburuak lortzeko ekintzak zehaztea garrantzitsua dela, eta ekintzak gauzatzeko baliabideak jartzea ezinbestekoa dela. Gobernu Programan hau jaso genuen: Durango euskal kulturaren eta euskararen egoitza bihurtzea nahi dugu, Durangoko Azokaz haratago, kultur ekimen ezberdinak bultzatuz eta lagunduz eta, dauzkagun instalazio ezberdinak erabiliz.

Duela aste pare bat, Euskaltzaindiarekin Euskara Ibiltaria erakusketa inauguratu genuen Plateruenan. Euskararen Herri Hizkeren Atlas oinarri hartuta sortutako erakusketa interaktiboa da, zentzumen guztiak erabiltzera gonbidatzen gaituena eta euskara eta Euskal Herriaren historia oso modu berezian murgiltzeko aukera ematen diguna.

Euskararen transmisioa hizkuntza bizirik iraunarazten duen fenomeno konplexua dela ez du inork zalantzan jartzen, eta eraginkorra izateko ez da nahikoa familiaren eta eskolaren esku bakarrik uztea.

Aurreko baten idazten nuen bezala, euskara ezagutu eta maite dugunoi dagokigu traktzionatzea, guri dagokigu lidergoa, lidergoa helburu bat lortzearen alde taldean eragin positiboa bultzatu eta motibatzea dela ulertuta. Hau da, kalean euskara gehiago entzun nahi badugu, berau erabiltzeaz gain, ingurugiro atseginak sortzea dagokigu bere ezagutzara eta, batez ere, erabilerara, jendea gehiago erakarri eta mantentzeko.

Euskara Ibiltaria helburu hori lortze aldera antolatu dugun ekintzetako bat da, kalean euskara gehiago entzutearena ez baita erronka makala.

Durangaldea asteen

Astolako kiroldegiko tabernaren ustiapena lehiaketa publikora atera dute

ABADIÑO | Abadiñoako Udalak lehiaketa publikora atera du Astolako kiroldegian dagoen tabernaren kudeaketa. Udaletik jakinarazi dutenez, kudeaketa hiru urterako izango da eta kudeatzaileek agerietan ageri diren zenbait puntu bete beharko dituzte: prezioak eta gutxieneko ordutegiak, besteak beste. Interesdunek maiatzaren 27ra arte izango dute aukera euren eskaintzak aurkezteko.

Maria Pilar Urbizu bilbotarrak irabazi du Garaiko Landare Azokako otzara

GARAI | Maria Pilar Urbizu bilbotarrak irabazi du Garaiko Landare Azokan zozkatutako otzara. Otzara Durangaldeko tokiko produktuekin osatuta egon da, Etartie elkarteak prestatuta.
Urkiola Landa Garapenerako Elkarteko presidente eta Garaiko Udaleko alkate Erramun Osak eman zion saria Urbizuri.



Carlos Montero pintore murtziarrak irabazi du Berrizko XXV. Kaleko Pintura Lehiaketa

BERRIZ | Zapatuan Berrizko XXV. Kaleko Pintura Lehiaketa izan zen, eta bertan Carlos Montero pintore murtziarrak lortu zuen lehenengo saria. Bigarren saria Segoviatik etorritako Raul Sanchezek irabazi zuen, eta hirugarrena Piedad Santamaria leioarrak. Herriko saria Karlos Berrizbeitiak eskuratu zuen.

Guztira, 21 lan aurkeztu zituzten Berrizko XXV. Kaleko Pintura Lehiaketara.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



Ez baduzu hanka sartu nahi, sartu zure iragarkia IragarkiLaburrak.eus atarian







LABIRINTOA



PUNTUAK LOTU

Zenbakiei jarraituta, lotu puntuak dagokien koloreagaz. Ondoren margotu.



DIFERENTZIAK

Topatu itzazu zazpi diferentziak.





'Guapa'

ANTZERKIA ELORRIO :: Maiatzak 10

'Guapa', ikusten ez den edertasunari buruzko hausnarketa

XX. mendearen hasieran fenome-
no-ikuskitzunez arrakasta handia
izan zuten eta ikusleek ordaindu
egiten zuten "izaki beldurga-
rriak" ikusteagaitik. Oraingoan
izaki horietariko bat igoko da
oholtzara: Mary. *Emakume bizar-
duna* deitzen zioten eta "mundu-
ko emakumerik itsusiena" lez
aurkezten zuten. Mary berriro
igoko da agertokira bere istorioa
kontatzera; hain zuen ere, barre
egin eta gozatu egiten zuten ema-
kumeak zirela kontatzera, desio-

dun emakumeak eta grina pizten
zutenak zirela erakustera. Horixe
du ardatz El mono habitado kon-
painiak taularatuko duen *Guapa*
antzezlanak. Elorrioko Arriola
antzokian izango da emanaldia,
gaur, 20:00etan.

Pertsonaia historikoez, giza-
banako arrotzek eta interpre-
teek eurek edertasunaz jardungo
dute, agerikoa eta ezkutaturiko
edertasunaz. Ikusten ez den
edertasunari buruzko ikuskizu-
na da *Guapa*.

Maiatzaren 10ean

ELORRIO **berbaldia**
'Katu kolonien kudeaketa
arduratsua' (Hizlaria:
APROVA elkarteko Toñy
Esteban), 18:00etan, kultur
etxean.

ELORRIO **kontzertua**
Waxy, 22:30ean, Ateneoan.

MAÑARIA **pailazoak**
'Amaren intxaurrak' (Porrotx
eta Marimotots), 18:00etan,
plazan.
Kuttune, 21:30ean.

ZORNOTZA **antzerkia**
'Zeozertan dabil
baina ez dakit zertan'
(**Metrokoadroka**), 20:00etan,
Zornotza Aretoan.

Maiatzaren 11n

ATXONDO **bertsoak**
IV. Durangaldea
Uztabarritzen zirkuitua: Iruri
Altzerreka, Erika Lagoma,
Ander Elorriaga eta Julio
Soto, 18:00etan, Amillena
Arrazolako bentan. Gaijartzailea:
Ainhoa Urien.

IURRETA **musika**
Joxe Mendizabalen kantaldia,
18:00etan, Bakixan.

IURRETA **irteera**
Madarixara bizikleta irteera,
08:00etan. Iurreta Txirindulari
Elkartea.

Maiatzaren 12an

ABADIÑO **santrokazak**
Abadiñoko Azoka, 10:30ean,
Txanporta plazan.
San Prudentzio-San Trokaz
esku pilota txapelketako
finalerdia, 16:30ean, kadete
mailan.
Gerbasen kalejira
txistulariekin eta dantzarien
ekitaldia, 19:00etan, San
Trokaz plazan (azken entsegua).

ABADIÑO **kontzertua**
Inoren Ero Ni, 13:30ean,
Amaraun Arte fabrian.

BERRIZ **lehiaketa**
Txori kantarien lehiaketa,
09:00etan, Berrizjauregi
lorategian.

DURANGO **jaialdia**
Haur minbiziaren kontrako
jaialdi solidarioa.
Inaugurazio ekitaldia,
10:00etan, tren geltokian.
Martxa familiarra, 10:30ean.
Durangoko Musika Eskolako
Tabira Bandak, Batukandrak eta
txistulariek lagunduta.
Herri Maite akordeoi taldea,
11:30ean, Landako Gunean.
Ikastetxe bakoitzak Gingko
bilonbaren ondoan landarea
sartzea, 12:00etan.
La Cuadri del Hospi elkartearen
ongietorria eta esker emate
ekitaldia, inaugurazio-aureskua
eta L'Atelier dantza eskola.
Ile mozketa solidarioak,
tonbola eta zozketak,
haurrentzako jarduerak,
12:00etatik 16:00etara.

Kontzertuak: Nonbait,
Gehi zapi + Bart sax + Ibai
Etxebarría + Goazen (Ander
Lacalle eta Nerea Elizalde) +
Iñaki Etkezarraga + Akerbeltz
+ Lehiotan, 12:00etatik
19:00etara.

IURRETA **irteera**
Basaurira bizikleta irteera,
08:00etan. Iurreta Txirindulari
Elkartea.

MAÑARIA **omenaldia**
Juan Bilbao dultzaineroari
omenaldia, 13:00etan, plazan.
Kalejira, 10:30ean.
Baltseoa, 12:30ean.

Maiatzaren 15ean

ABADIÑO **santrokazak**
Ezpatadantzari eta
irlanderen dantzaldia,
13:00etan, San Trokaz plazan.
Erromeria: Beranduegi,
17:00etan, Txanportan.

Maiatzaren 15era bitartean

ATXONDO **izen ematea**
Baztanera irteera Asuntze
mendi taldeagaz, ekainaren
8an eta 9an. Izena emateko: 680
538 390 / asuntzemk@hotmail.
com.

DURANGO **erakusketa**
'**Euskara ibiltaria**', Plateruena
Kultur Aterpean. Eguen eta
barikuetan 17:00etatik
19:00etara, eta zapatuetan
10:30etik 13:30era.

Maiatzaren 17an

ABADIÑO **santrokazak**
Disko Txiki Go!, disko-dantza,
18:00etan, Txanporta plazan.
San Trokaz Eskuz Binakako
pilota goxoa txapelketako
finalak, 19:00etan, trinketeen.

IURRETA **ipuinak**
'**Egin putz, fuuu eta zaku**
bete ipuin' (Dorleta Kortazar),
17:00etan, bibliotekan (3-5 urte).
Bigarren saioa, 17:45ean.

IURRETA **antzerkia**
'**Un reventón inesperado**' (La
Sombra Teatro), 19:00etan,
kultur etxean.

ZALDIBAR **bertsoak**
IV. Durangaldea
Uztabarritzen bertso
zirkuitua: Ixone Asategi,
Onintza Enbeita, Gorka
Pagonabarraga eta Igor
Elortza, 20:00etan, Gaztetxean.
Gaijartzailea: Maite Berriozabal.

Zinema

:: **Berriz**
KULTUR ETXEA

• **Pájaros**
barikua 10: 19:30
domeka 12: 19:00

:: **Durango**
ZUGAZA ZINEMA

• **El reino del planeta de los simios**
barikua 10: 18:00 / 21:00
zapatua 11: 18:00 / 21:00
domeka 12: 16:45 / 19:30
astelehena 13: 19:00
martitzena 14: 19:00
eguzartena 15: 19:00

• **Nina**
barikua 10: 18:30 / 21:00
zapatua 11: 19:30 / 21:30
domeka 12: 19:30
astelehena 13: 18:00 / 20:15
martitzena 14: 18:00 / 20:15
eguzartena 15: 19:00

• **Hasta el fin del mundo**
barikua 10: 21:00
zapatua 11: 19:00 / 21:30
domeka 12: 19:30
astelehena 13: 18:00 / 20:15
martitzena 14: 18:00 / 20:15
eguzartena 15: 19:00

• **Deep sea. Sakontasunera bidaia bat**
zapatua 11: 16:45
domeka 12: 17:00

• **Garfield: la película**
viernes 10: 18:30
zapatua 11: 16:45
domeka 12: 17:00

:: **Elorrio**
ARRIOLA ANTZOKIA

• **Puan**
zapatua 11: 20:00
domeka 12: 20:00
astelehena 13: 20:00

:: **Zornotza**
ZORNOTZA ARETOA

• **Siempre nos quedara mañana**
zapatua 11: 20:00
domeka 12: 20:00
astelehena 13: 20:15

• **Garfield. La película**
zapatua 11: 17:00
domeka 12: 17:00

• **How to have sex**
martitzena 14: 20:15

Oraindik ez zara ANBOTOk whatsapp taldeko kide?

Durangaldeko azken
albisteak jaso gura
badituzu batu Anbotoko
whatsapp taldera



Bidali 'ALTA'

688 635 041

telefono zenbakira

* Izan zaitez berriemaile ere.
Bidali zure argazki eta bideoak

anboto

“30 urte lanean daraman profesionalak egiten duena egin gura dugu lehenengo egunetik, eta hori ezinezkoa da”

Eñaut Aiartzaguena iurretarrak 'Akuarelak aire zabalean' liburuak kaleratu du oraintsu, UEUren bitartez; teknika honetan espezializatu da azken urteetan



Eñaut Aiartzaguena
Bravo

Marrazkigilea

IURRETA | 1988

MARRAZKIGINTZA • ARITZ MALDONADO

Eñaut Aiartzaguena iurretarrak ia bizitza osoa darama marrazten, eta azken urteetan profesionalki horretara dedikatzeko aukera izan du, gainera. Oraintsu, 'Akuarelak aire zabalean' liburuak kaleratu du, UEUren eskutik. Helduentzako ikastaroak ere ematen ditu. Hurrengoa maiatzaren 25ean, Iruñean.

Nondik dator liburuaren ideia?

Orain hiru bat urte hasi nintzen uztartzen nire afizioa, mendizaletasuna, eta nire lanbidea, margolaritza. Mendira akurelak eta koardernotxo bat eramaten hasi nintzen. Afizio modura hasi zena nire arlo profesionalan ere sartu nuen, abanikoa zabaltzeko asmoz. Neure kabuz ikasten hasi nintzen, teknika, materialak eta abar. Handik urtebetera edo, lehenengo ikastaroa eman genuen, Urkiolako parketxean. Materiala pilatzen eta teoria biltzen hasi nintzen. Harrezkero beste hainbat ikastaro eman dut, baina beti umeei. Halako batean, horrelakoak na-

gusientzat ere badirela pentsatu nuen, eta helduentzako ikastaro bat egitea proposatu nion UEUri. Onartu egin zuten eta buru-belarri hasi nintzen prestatzen: liburuak irakurtzen, ikaste prozesua ordenatzen, zelan erakutsi begiratzeko, apunteak prestatzen... Apunte horiek prestatzen nenbela pentsatu nuen liburuak egitea: marrazki hau oso ondo dago, hau argitaratu egin behar da. Esango nuke ez dagoela horrelakorik euskaraz. Gaztelaniaz bai, ingelesez ere bai, baina euskaraz oso gauza gutxi dago argitaratuta. UEUra jo nuen gomendio bila, nogaz argitaratu nezakeen galdetzeraz, eta eurek egitea proposatu zidaten. Eurek egin zituzten zuzenketak, eta ikasleek egindako ekarpenak ere gehitu zituzten. Niretzat sekulako oparia izan da hau, oso eskertua nago.

Liburuak aurkezpenak ere erraztuko dizkizu.

Akuarelen munduan sartu gura duen edozeinen eskura dagoen liburuak da, eta euskaraz dago

gainera. Irakurrita bakarrik inork ere ez du marrazten ikasiko, marraztea marrazten baino ezin delako ikasi, ez dago bidezidorririk. Eta aukera hori euskaraz edukitzea polita da.

“Nire marrazki estiloa gauza batzuetara bideratuta dago, transmisio lan batera begira gehiago, baina marrazkiek, berez, mila

Akuarelan espezializatu zara.

Komiki estiloko beste lanekin ere jarraizten dut, baina azken hiru urteetan asko ikasi dut. Orain hiru ipuin ilustratzen ibili naiz, adibidez. Azken hilean akuarelak apur bat alboratuta izan ditut, lan kargagaitik, baina ez guztiz. Arratsaldeetan klaseak ematen

ditut Zornotzako Estudio 2 akademian. Denerik erakusten da bertan, baina akuarela eskolak neuk ematen ditut. Teknika desberdinak probatzen ibili naiz, material desberdinak. Jardunean lortzen da espezializatzea.

Akuarelak kanpoan margotzeko ematen duen erraztasunak ere zerkusia du aukeraketa horretan?

Sare sozialetan agertzen da jendea, oleoa-eta pintatzen duena kalean, baina akuarelak ematen dituen erraztasuna eta aukerak itzelak dira. Alde batetik, material gutxi behar da, eta erraza da garbitzeko eta garraiatzeko. Dena motxila txiki batean eraman daiteke. Beste alde batetik, lana oso azkar egiten da. Hiru pintzelkadagaz zero urdina margotu dezakezu; arkatzagaz, osteraz, denbora gehiago behar duzu. Beraz, eskertzen da mendian horrela margotu ahal izatea.

Zergaitik lotzen da marrazketa umeekin?

Ez dakit, baina horrela da. Ikastaro hauek espreski helduentzat

dira eta nik ere horixe gura nuen, ate hori zabaltzea. Marrazkiak umeentzat katalogatzen ditugu, izan liburuetan edo ikus-entzunezkoetan, eta hori ez da horrela. Mundu honetan, irudiz inguraturta gaude helduok ere, eta horri ez diogu baliorik ematen. Probatzen duen jendeak eta marrazteari denbora bat eskaintzen dionak eskertu egiten du gero. Zer onura dakarkion ikusten du; azken finean, marrazteari eskaintzen

“Azken finean, marrazteari eskaintzen zaion denbora norberari eskainitako kalitatezko denbora bat delako, batez ere presaka bizi garen sasoi honetan

zaion denbora norberari eskainitako kalitatezko denbora bat delako, batez ere presaka bizi garen sasoi honetan. Zer gertatzen da? Geure buruan ondo dagoena eta txarto dagoena desberdintzen ditugu; aurretik sekula marraztu barik, 30 urte marrazten daraman profesionalak egiten duena lehenengo saiakeran irtetea gura dugu, eta hori ezinezkoa da. Horrek frustrazioa dakarkio helduari, eta horregaitik uzten dugu umeentzat. Eibarko eta Urkiolako ikastaroetan oso gustura ibili gara. Ariketak egin eta gero, ikasleek emaitzak ikusten zituzten egun bi horietan. Marrazten ere ikasi egiten da, eta gu hori erakusten ahalegintzen gara.

Zinean, komikietan... marrazkien itzulera bat dago?

Faktore desberdinak egongo dira. Adibidez, badirudi jendea oraintsu konturatu dela Euskal Herrian zelako maila handia dagoen. Ilustratzaileek lanak argitaratzeko aukera egon denean konturatu gara formatu honek hainbat gauza lantzeko balio duela. Joseba Larratxeren *Ni enaiz Mikel Laboa* liburuaren maila egundokoa da, eta Adur Larrearen *Gabriel Aresti Biografikoa* ere ikaragarria iruditu zait. Estilo desberdinak, gai desberdinak, baina kalitate handikoak biak. Eta ez dira umeentzat. Nire marrazki estiloa gauza batzuetara bideratuta dago, transmisio lanera gehiago, baina marrazkiek mila aukera ematen dituzte.

"Edozein gai, oso potentea bada ere, umoretik eginez beste modu batera heltzen da publikoarengana"

'Zeozertan dabil baina ez dakit zertan' antzezlanaren azken emanaldietako lehenengoa Zornotza aretoan izango da gaur



Javier Barandiaran, Edurne Azkarate eta Maite Aizpurua. **MENDI URRUZUNO**

ANTZERKIA • ARITZ MALDONADO

Zeozertan dabil baina ez dakit zertan antzezlanak ikusteko azken aukeratariko bat egongo da gaur, Zornotza Aretokan. Ia urte bian oholtzetan izan eta gero, udaberrian emanaldi bi egingo dituzte, horietariko bat Zornotzan. Familia da Metrokoadroka konpainiaren azken lanaren ardatza. Ohikoa duten moduan, umoretik jo dute gai sakonak publi-

koarengana helarazteko. "Arduratzzen gaituen gai baten inguruan barre egin ahal izateak jendea lasaitu egiten du, pisu bat kentzen digu gainetik. Denok ditugu familiak, modu batekoak edo bestekoak, eta gatazkaren bat ere bai; hortaz, oso ezagunak egin ahal zaizkigu antzezlaneko hainbat une, eta geure buruaz barre egin ahal izateak

magia hori sortzen du publikoagaz", azaldu du Oier Guillan zuzendariak. "Metrokoadrokan beti pentsatu dugu edozein gai, oso potentea bada ere, umoretik jorratuz errealitatearen beste begirada bat eskaintzen duela. Umoreak humanizatu egiten ditu gaiak eta beste modu batera heltzen dira publikoarengana, hurbilekoak

egiten zaizkio", gehitu du. Hala, pozik daude antzezlanak izandako harreragaz. "Interes handia piztu duela igarri dugu eta jendea areotik irribarre bategaz irteten ikusi dugu. Ikusleek esan digute oso ondo pasatu dutela antzezlanean, baina gaiak zer pentsatua ere eman diela etxerakoan, eta hori oso pozgarria da guretzat".

Metrokoadrokak kideek te-
lebigistako sitcom-a eta antzer-
kiko komedia kostunbristako
elementuak elkartu dituzte lan
honetarako. "Gure egiteko modua
ez da istorio bat modu klasikoan
kontatzea, argumentu itxi bate-
gaz. Guk eskaintzen dugun teatro
motak asko du poesia bisualetik,
edo absurdotik; beste kode batzuk
sartzen ditugu. Kasu honetan,
arrotza zaigun baina aldi berean
guztiz presente dauden barre eta
txalo grabatuen mundu horretara
eraman gura genuen. Uste dut
horrek erraztu egin duela modu
ulergarri eta gertukoan komedia
eta esperimentazioa uztartzea,
eta zerbait magikoa irteten dela",
nabarmendu du Guillanek. Maite
Aizpurua, Edurne Azkarate eta Ja-
vier Barandiaran dira protagonis-
tak. Zuzendariak aktoreen lana
nabarmendu du: "Eurekin elkarla-
nean egin dugu gidoia, eta hori ez
da ohikoena izaten". Guillanegaz
batera, Marina Suarez Ortiz de Za-
rate arduratu da obra zuzentzeaz.

Prozesuan gozatzen

Guillanen berbetan, Metroko-
adrokaren sortze prozesuak ez
dituzte estu lotzen testuetara;
oraingoan, baina, urrunago joan
dira: "Tituluak bikain islatzen
du izan dugun grina. Lan handia
egin dugu, nora helduko ginen ja-
kin barik, bidean gauza asko topa-
tzen, familiari buruzko antzezlan
bat zela konturatu arte". Zornotza
Aretoko emanaldiaz gainera, za-
paturako jai berezi bat antolatu
dute Hendaian, udaberriko bira
ixteko.

Gai librean

Jaiak, norentzat?

Abadiñarra naizen aldetik, Durangalde-
koek ulertuko duzue guretzat are biz-
korrago doala maiatza. San Prudentzio
eta San Trokaz jaiak buruhauste handia
ematen digute antolakuntzaren mun-
duan gabiltzanoi, gehienbat ez dabilta-
nen aldetik. Herriko edo auzoko jaiak
herritarrenak edo auzotarrenak behar
dute izan. Jai eta txosna batzordeek pu-
bliko orokorrari begira antolatzen dituz-
te kultur ekintzak eta ikuskizunak, beti
ere gizartearen oinarritzko eskubideak
eta balioak errespetatzen edota susta-
tzen badira.

Baina denok dakigu denon gustura
antolatzea ezinezkoa dela. Beti egongo
da nor edo nor jaiari hutsuneak bilatu
gura dizkiona. Gauzak hobetzeko as-
motik urrun, hutsune horiek sareetan



Igor
Galarza Intxausti
Kazetaria

“opina” aditzaren pean dauden taldee-
tan zabaltzeko, herritarren artean kexu
pertsonala popularizatzeko. Jende hori,
herriarengaitik ezer ere eman ez duena;
edo are okerrago, irabazi propiora begira
bakarrik eman duena.

Kexak beti egongo direla onartzen
badugu ere, urtetik urtera harrigarria-
goa da kexa moten maila. Ez du zertan
jaietan izan bakarrik, baina jaietan be-
reziki bada. Udalak ez duela alkoholik
jartzen bazkarietan, ekintza gehienak
txosnagunean egiten direla eta ea
zergaitik ez diren taberna inguruetan
egiten, kartel bat euskara hutsean
dagoela eta ea zergaitik ez den gaztela-
niaz ere idazten... Hori guztia entzun
behar izan dute aurren Abadiñoko jai
batzordeek. Lagun batek hauxe esan zi-
dan, eta erabat ados nago: jende batek
beste jende baten ekintza guztiak po-

litizatuak eta ideologizatuak ikusten
ditu; orain, norberarenak herritarren
funtsezko balioei eta bizikidetzari
erantzuten dien ekintzak dira.

Abadiñoko gizartea oso anitza da
eta kulturartekotasun horretan argi
printzak ikus daitezke. Egia da alde
guztietan dagoela beste aldeari mesfi-
dati begiratzen dion sektore bat. Baina
guztiok guztiontzat egiteaz ari gare-
nean, betiko batzuek ez dute herria
euskalduntzerik gura, feminista iza-
terik gura, beraien “askatasuna” urra-
tzerik gura. Horrek guztiak zerbait
urratuko balu legez. Herri honek ikasi
behar du herriak ekintzak antolatzea
gizartearen ezinbesteko printzipioa
dela; auzokideak ekintzak antolatu
bitartean sofán geratzeko edo jaso beha-
rreko zerbitzu legez ikustea, berriz,
ideologikoa.

Elorrioko Aldapegora mendi lasterketa nobedadeekin dator zapatuan: herri proba eta umeentzakoa ere egingo dituzte

Iazko estreinaldiak harrera ona izan zuen eta aurten errepikatu egingo dute 26 kilometroko lasterketa, 150 bat parte hartzailegaz

MENDI LASTERKETA • JOSEBA DERTEANO

Elorrioko Aldapegora mendi lasterketak bigarren aldia egingo du zapatu honetan. Iazko balorazio positiboa egin dute Erdella mendi taldeko kideek eta esperientzia on harek aurten errepikatzen animatu ditu.

Lasterketa hainbat nobedade-gaz dator. Alde batetik, probaren data aldatu dute. Iaz irailean egin zuten eta aurten maiatzera aurreratu dute. "Iaz mendi lasterketa eta martxa asteburu berean izan ziren eta jendeak bata edo bestea aukeratzaren zuten. Aurten, gura duenak errazago izango du biak egitea", adierazi zuen probako antolatzaileetarikoa bat den Txaber San Pedrok eguazteneko aurkezpenean. Data aldaketak harrera ona izan du korrikalarien artean. Guztira, 350 korrikalari batuko dira.

Proba laburra, Erdellatik

Iaz korrika egiteko ibilbide bakarra egon zen aukeran: 26 kilometrokoa. Aurten 15 kilometroko laburrago bat ere egongo dela da beste nobedade bat. Abanikoa zabalduz "jende gehiago erakartzea" da helburua. Guztira, 200 korrikalarik parte hartuko dute.

Proba herrikoia 10:30ean hasiko da, Elorrioko plazan. Erdellako kideak sarritan ibiltzen diren bi-deetatik diseinatu dute ibilbidea. 15 kilometrotan, korrikalariak 850 metroko desnibela gaindituko dute. Erdella (682 metro) eta Intxorta (743 metro) izango dira probako punturik garaienak. Bidean hainbat ermita (San Juan, San Adrian...) eta auzo igaroko dute.



Garazi Sampedro iazko irabazlea, helmugara sartzen.

Luzea, Udalatxetik

Lasterketa luzea 09:45ean hasiko da eta iazko ibilbidea errepikatuko dute. 1.700 metroko desnibel positiboko ibilbidean, Elorrio inguruko tontorrik esanguratsuenak igaroko dituzte. Memaia izango da igoko duten lehenengo mendia, bosgarren kilometroan. Hiru kilometro geroago, Besaideko monumentu ondotik igaro eta Udalatxerako bidea hartuko dute. Udalatxetik Kanpanzarrera, Kanpanzarretik In-

txorta igo, eta handik Aldape auzora jaitsiko dira ondoren, helmugarantz jo aurretik. 150 korrikalarik eman dute izena ibilbide luzerako. Izarrik handiena Oihana Kortazar izango da.

Umeentzako lasterketak

Aldapegora ez da goizeko lasterketekin amaituko. Arratsaldean umeentzako lasterketa txiki bi ere egongo dira. Horixe da beste berrikuntza bat. 16:30ean 5etik 10

urtera artekoen lasterketa hasiko da, eta 17:00etan 11tik 15era artekoena. Gurasoek seme-alabekin parte hartzeko aukera izango dute.

Lasterketaren harira, herrian egun osoko jai giroa sortzea gura dutela azaldu dute. Horrela, Elorrio Rugby Taldeak karpa bat ipiniko du herriko plazan. Edaria eta ogitartekoak salduko dituzte bertan. Bestalde, arratsaldean txokolatada eta DJ Belkroren emanaldia egongo dira, 18:00etan.

Etiketa berdea

Aurten Etiketa Berdearen aldeko apustua egin dute Aldapegoran. Elkarbizitzan, berdintasunean eta jasangarritasunean oinarrituriko lasterketak sustatzeko egitasmoa da Etiketa Berdea. Ildo horretatik, Elorrioko ibilbidea esprai ekologikoagaz markatu dute, eta egunean zehar birziklagarriak diren edalontziak eta bestelakoak erabiliko dituzte, antolatzaileek jakinarazi dutenez.

Iker Trigo zornotzarrak bere balioa erakutsi du Balentziaga proban lehen euskalduna izan da

Afizionatuetako lasterketa prestigiotsuan nabarmendu aurretik, podiumera igo zen Lazkaon

TXIRRINDULARITZA • JOSEBA DERTEANO

Iker Trigo (Zornotza, 2001) bere ibilbideko une garrantzitsuan dago. Bigarren denboraldia du Euskalteleko filiala den Laboral Kutxa taldean, eta talde nagusirako urratsa ematea du amets, han dabilzan denen antzera. Baina hori lortzeko ez da nahikoa desioa izatea. Errepidean balioa erakutsi beharra dago eta 23 urteko zornotzarrak zertarako gai den erakutsi zuen joan zen asteburuan. Parte

harturiko lasterketa bietan podiumera igo zen.

Lorpenik inportanteena Eibarko Balentziagaren oroimenezko lasterketakoa da, joan zen domekan. Seigarren tokian helmugaratuta, lehenengo euskalduna izan zen eta lorpen horri dagokion elastiko berdea jantzi zuen podiumean. Ez da edozelako lorpena, afizionatu mailako probarik prestigiotsuenetarikoa dela kontuan hartuta. Erakusleho ederra da profesiona-

letarako saltoa eman guran dabilzan txirrindulari gazteentzat, eta Trigok ederto aprobetxatu zuen abagunea. San Miguel mendatean gora agerian geratu ziren bere eskalatzaile dohainak. "Konfiantza handiagaz" zegoela adierazi du ziklista zornotzarrak, eta ez da gutxiagorako, aurreko egunean Lazkaon podiumera igo zen eta. Kasu hartan, Gaiñzan eta Lazkaomendin gora erakutsi zituen bere dohainak. Bigarren helmugaratu zen.



Iker Trigo Balentziaga sariko podiumean.

Tabirako Baque EBA mailara igo daiteke zuzenean, Loiola mendean hartzen badu

Galduta ere, igotzeko aukera izango du, Lauko Finalerako sailkatuta dagoelako



Xabier Chico entrenatzailea jokalariei aginduak ematen hutsarte batean. LUIS ITURRIOZ

SASKIBALOA • JOSEBA DERTEANO
Gizonen Euskadiko Lehen Mailako liga erregularra asteburu honetan amaituko da. Une honetan Tabirako Baque lider da, 22 garaipenekin. Garaipen bat gutxiago du Loiola Indautxuk, hirugarren tokian. Bada, talde biek elkarren kontra jokatuko dute zapatuan, 18:00etan, Bilbon. Tabirakok irabazten badu, EBA mailara igoko da zuzenean. Galduz gero, oster, bizirik jarraituko du, Lauko Finalerako sailkatuta dagoelako.

Azken urteetan, Tabirakok birritan lortu du EBA mailan jokatzea: 2020an eta 2023an. Beraz, bost urtean hirugarrenez jokatuko dezake Espainiako mailako liga batean. Lorpen handia da harrobitik bakarrik hornitzen den klub batentzat.

Senior neskek Lauko Finala
Gizonek Bilbon jokatuko dutena ez da Tabirakoren asteburuko hitzordu inportante bakarra izango. Bigarren Nazionalera igotzeko borrokan, senior emakumeek Lauko Finala jokatuko dute Basauriko Urbi kiroldegian. Finalerdia Begonazpiren kontra jokatuko dute, zapatuan, 18:15ean.

Kadeteak txapeldun
Tabirakoko neska kadete eta gazteek Bizkaiko finalak jokatu zituzten asteburuan. Kadeteak txapeldun geratu ziren, Ermuan. Gazteak, oster, txapeldunorde izan ziren Durangoko finalean.

TXIRRINDULARITZA • J.D.
Aurten ere munduko txirrindularirik onenetarikoak eskualdeko errepideetan ikusteko aukera eskainiko du Durango-Durango Emakumeen Laboral Kutxa Sariak martitzenean. 12 herrialdeetako 26 talde etorriko dira. Eurretariako zazpi World Tour mailakoak dira, Movistar nafarra kasu. Gainerako taldeen artean, Laboral Kutxa eta Zatika Team euskaldunak eta Eneritz Iturriaga abadiñarrak gidatzen duen Eneicat nabarmendu daitezke.

Lasterketa Durangoko Ezkurdin hasi eta amaituko da. Txirrindulariak 15:00etan ir-

Durangoko klasikoak munduko txirrindularirik onenetarikoak ekarriko ditu martitzenean

Hamabi herrialdeetako 26 taldek parte hartuko dute. Eurretariako zazpi World Tour mailakoak izango dira



Ane Santesteban iaz, San Juan de Momoitiorako aldapa gogorrean.

tengo dira eta azken urteetako ibilbide bera egingo dute. 113 kilometrotan zehar lau bider egingo dute Miotako itzulia. Azkenengo itzuliaren ondoren helduko da zale guztiek itxaroten dutena: San Juaneko horma. Makur-makur eginda, ziklistek %18ra arteko aldatsak igo beharko dituzte. Han aldea hartzen duenak eskuan izango du garaipena, helmuga kilometro gutxira dago eta.

Iazko esperientzia errepikatuz, aurten ere lasterketa Interneten jarraituko ahal izango da: YouTubeko Sportpublictv kanalean, hain zuzen ere.

Jokaldia

Alfila, xakeko gudaria

Xakean, zaldia bezala, alfila pieza txikitat hartzen da, 3 edo 3,5 peoi inguruko balioa baitu. Historialari guztiak bat datoz esatean Indiatik datorren jokoa, 'Txaturanga', xakearen aurkitutako arbasorik zaharrena dela. Ondoren, VI. mende inguruko 'Txatrang' persiarerra eta geroago 'Shatranj' arabiarrera igaro zen.

Jokoaren bertsio hauetan hasi zen 'alfil' izena erabiltzen; arabierazko 'al-fil' hitzetik dator, literalki 'elefantea' esan nahi duena, eta, aldi berean, 'pil' (elefante) persiarretik dator. Askok diote piezaren goialdeko bi tontorrek elefantearen hortza sinbolizatzen dutela. Gainera, indiarrek gerrarako erabiltzen zuten elefantea eta hau xakean islatu zen, hasieran bere mugimendua mugatuagoa zen: bi laukitxo bakarrik egin zitzakeen aurrera diagonalen.



Gabriel Barranco Devesa
Larrasoloetako xakelaria

Erdi Aroan alfilari mugimendu zabalagoa eman zitzaion. Horrek pieza moldakorrago eta ahaltuago bihurtu zuen

Gehien gustuko dudana izena euskaraz ematen zaiona da: 'Gudari', izen bikaina!

Erdi Aroan jokoa Europan zehar hedatu zen eta gaur egun nazioarteko estiloko xakea esaten zaiona garatu

zen. Ondorioz, alfilari mugimendu zabalagoa eman zitzaion: diagonalen mugi zitekeen taula osoan zehar. Mugimendu aldaketa horrek pieza moldakorrago eta jokorako ahaltuago bihurtu zuen.

Garai honetan, eliza katolikoak zuen eraginaren ondorioz, herrialde batzuetan, Portugalen eta Italian bezala 'apezpiku' ('obispo' gaztelaniaz, 'bishop' ingelesez) izena jaso zuen.

Bitxia da beste hizkuntza batzuetan daukan izena, adibidez: 'korrikalari' ('läufer' alemanez), 'ehiztari' ('lovac' serbieraz), 'artillero' ('strelec' eslovakeraz), 'lantza' ('oda' estonieraz), 'bufoi' ('fou' frantsesez), 'gamelu' (Tibeten eta Mongolian)...

Baina gehien gustuko dudana izena euskaraz ematen zaiona da: 'Gudari', izen bikaina!



ETXETXO
INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

IURRETA: ERAIKUNTZA BERRIA. 2 eta 3 logela. Garajea eta trastelekua.
256.000 €-TIK AURRERA

// AUKERA

MATIENA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handia. Terraza. Ganbara eta garaje itxia. **C.E.E=E 259.000 €**

DURANGO: 120 m². 4 logela, 2 komun eta sukaldea eskegitokiarekin. Ganbara eta garaje zuzena. Txoko komunitarioa eta solariuma. **C.E.E=E 260.000 €**

F.J. DE ZUMARRAGA: 3 logela, komuna eta sukalde-egongela. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=E 195.000 €**

IURRETA: 70 m². 3 logela, komuna, sukalde handia eta egongela. Hegoaldea. **C.E.E=F 170.000 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

IBAIZABAL: Logela bakarreko apartamentua, komuna, sukaldea eta egongela. Garajea eta trastelekua. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=E 220.000€**

IURRETA: 114 m². 4 logela eta komuna. 2 terraza. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=F 246.000 €**

FRANZISKO IBARRA: 105 m². 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara. Garaje itxia. **C.E.E=E 335.000 €**

ERROTARITXUENA: Erdi berria. 3 logela horma-armairuekin eta 2 komun. Terraza. Garajea eta trastelekua. **C.E.E=D 359.000 €**

ASTXIKI: 147 m². 4 logela eta 2 komun. Ganbara. 2 kotxerentzako garajea. Etxe osoak kanpora ematen du.Balkoia. **C.E.E=E 380.000 €**

IURRETA: 3 logela eta komuna duxarekin. Igogailua. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=G 145.000 €**

DURANGO: Berriztatutako pisua. 2 logela, komuna duxarekin, sukaldea eta egongela handia. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=E 155.000 €**

KOMENTUKALEA: 70 m². 2 logela handiak, komuna, sukaldea despentsarekin eta egongela terrazarekin. **C.E.E=F 187.000 €**

ANDRA MARI: 85 m². 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ganbara. **C.E.E=F 255.000 €**

ZALDIBAR: 85 m². 3 logela, komuna eta sukaldea balkoiarekin. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=G 164.000 €**

IURRETA: 70 m². 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela handia. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=E 170.000 €**

JUAN DE OLAZARAN: 85 m². Guztiz jantzia. 3 logela eta 2 komun. Bizitzen sartzeko moduan. Garajea eta trastelekua. **C.E.E=B 382.000 €**

// ALOKAIRUAN EROSTEKO AUKERAREKIN

ZALDIBAR: 80 m². Erdialdean. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Ganbara eta 2 kotxerentzako garajea. **C.E.E=F 165.000 € /650 € HILEKO**

// GARAJEAK SALGAI

ERDIALDEAN: Garajea. 13.000 €

J.M.ALTUNA: Garajea. 15.000 €

ALLUITZ: Garaje itxia. 23.000 €



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

// ETXEBIZITZAK SALGAI DURANGO

ASKATASUN ETORBIDEA: 2 logela, 2 komun eta sukalde-egongela. Terraza handia. Garajea eta ganbara.

PINONDO: Logela biko atiko ederra. Sukaldea eta komuna. 50 m²-ko lokalarekin batera salgai.

BARRENKALEA: Logela bateko apartamentua. Sukaldea, egongela, eta komuna. Trastelekua.

TABIRA: 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Oso argitsua.

BERRIZ

BERRIZ: 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta traestelekua.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

TABIRA: 1.445 m²-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Laua.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ABADIÑO: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatze. Lursailarekin. Ganbara.

BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatze. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatze. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berriztatze. Kokapen izugarria

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatze. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

//BULEGOAK ALOKAIRUAN ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIRUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.


//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.



Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

www.inmoduranguesado.com



DURANGO 50,56 m²
logela 1
SAN FAUSTO: 50,56 m². Halla, egongela, sukalde jantzia, logela eta komuna. Banaketa berria egiteko aukerarekin. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-hegoaldea) Ikuspegiak. Leku onean kokatua, zonalde lasaia eta aparkatzeko erraztazuna.
114.000 € C.E.E: G



DURANGO 69,99 m²
3 logela
ANBOTO KALEA: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Balkoia. Etxe erdiak kanpora ematen du, hegoaldea. Argitsua. Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. Egoera onean. ITE-a pasatutakoa.
192.000 € C.E.E: E



DURANGO 66,40 m²
3 logela
ASKATASUN ETORBIDEA: 2011. urtean eraikia. Egongela, sukalde jantzia, 2 logela, eskegitokia eta 2 komun. 250 m²-ko TERRAZA. Etxe osoak kanpora ematen du, ipar-ekialdea. Argitsua. Ikuspegiak. Zonalde lasaia, zonalde berdeak eta zerbitzugunez inguratuta. Herriko sarrera/irteeratik gertu. Garajea.
305.000 € C.E.E: Bidean



DURANGO 90,90 m²
LAUBIDETA: (2004.an eraikitakoa) bi solairutan: Lehenengo solairua: 67 m². Egongela, sukalde jantzia, 2 logela, eskegitokia eta komuna. Bigarren solairua: 23,90 m², espazio diafanoan eta komuna.Laugarren logelarako aukera. Ezin hobea. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-hegoaldea). Argitsua eta ikuspegiak dituena. Zonalde lasaia. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak eta herriko sarrera/irteeratik gertu. Garajea aukeran: + 20.000 €, iteko aukerarekin.
315.000 € C.E.E: Bidean



MATIENA 73 m²
3 logela
TXINURRISOLO: Egongela-sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia. Berriztatua. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-ekialde-hegoaldea). Leku onean kokatua, zonalde berdeetatik eta zerbitzuguneetatik gertu. 6 m²-ko ganbara. ITE-a pasatutakoa. Ez ditu berrikuntzak behar.
169.000 € C.E.E: E



MATIENA 66,83 m²
3 logela
LAUBIDETA: 66,83 m² erabilgarri. Sukalde amerikarra, egongela, 3 logela eta komuna duxarekin. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du, hegoaldea. Argitsua. Egoera onean. Zonalde lasaia, herriko sarrera/irteeratik gertu. Etxebizitzatik gertu dagoen garajea erosteko aukera dago.
204.500 € C.E.E: E



Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behea • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

//BERRIAK ABADIÑO
ABADIÑO: Konpontzeko dagoen eraikina. Behe-solairua eta 3 pisuko altuera.

//DURANGO
ANTSO ESTEGIZ: 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Trastelekua. Igogailua. **LEHEN 192.000 € ORAIN 175.000 € / E.E.Z=F**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 320.000 € ORAIN 298.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea eskegitokiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000€ ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**

BARRENKALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Berriztatze. **LEHEN 150.000 € ORAIN 138.000 € / E.E.Z=G**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

ERROTARITXUENA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea. Trastelekua. Igogailua. **359.000€ / E.E.Z=D**

JUAN DE OLAZARAN: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

KALEBARRIA: 2 logela, egongela-sukaldea eta komuna. Igogailua. **LEHEN 195.000 € / ORAIN 175.000 € / E.E.Z=E**

KOMENTU KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. Ganbara. **187.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitze. 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 550.000 € ORAIN 495.000 €**

//BERRIZ
MURGOITIO AUZOA: Berreraikitze. baserria lurzorugaz. **LEHEN 280.000 € ORAIN 250.000€**

//GARAI
MOMOITIO AUZOA: Etxebizitza eraikitze. lursailak. Aukera ezberdinak.

//IZURTZA
ELIZALDE AUZOA: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **LEHEN 620.000€ ORAIN 570.000€/ E.E.Z=E**

//OTXANDIO
ZELAIETA AUZOA: Baserria. 40.355 m²-ko lursaila. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. **LEHEN 348.000€ / ORAIN 280.000€ E.E.Z=G**

//ZALDIBAR
BOLATOKI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. **130.000 € / E.E.Z=G**

//GARAJEAK SALGAI /ALOKATZEKO
Durango eta lurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuarekin.

//LOKALAK SALGAI / ALOKAGAI

Informazio gehiago bulegoan.

//ETXEBIZITZAK ALOKAGAI

Informazio gehiago bulegoan.

Botikak	
BARIKUA, 10 · 09:00-09:00	GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA
BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO	09:00-22:00
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA	SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
09:00-22:00	ASTELEHENA, 13 · 09:00-09:00
SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO	MUGICA, ANDRA MARIA 9 - DURANGO
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA
09:00-22:00	09:00-22:00
ZAPATUA, 11 · 09:00-09:00	SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
DE DIEGO, INTXAURRONDO 22. - DURANGO	IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA	SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
09:00-13:30	MARTITZENA, 14 · 09:00-09:00
BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO	BALENCIAGA, EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO
BALENCIAGA, EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO	GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA
DE DIEGO, INTXAURRONDO 22. - DURANGO	09:00-22:00
CAMPILLO, MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO	SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO	SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
ETXEBARRIA, MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO	IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO	EGUAZTENA, 15 · 09:00-09:00
GAZTELUMENDI, J.A. ABASOLO 2 - DURANGO	NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO
FARMAZIA MATIENA, TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO	GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA
SANTAMARIA, ERREKAKALE 6. - ELORRIO	09:00-22:00
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA	SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA	EGUENA, 16 · 09:00-09:00
GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA	ETXEBARRIA, MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO
09:00-14:00	GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA
IRIGOIEN, BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA	09:00-22:00
09:00-22:00	SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO	SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
DOMEKA, 12 · 09:00-09:00	
SAGASTIZABAL, ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO	

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



Zorionak guztioi!

GOZATU GOZOTEGIA

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozategia
gozatugozategia



Zorionak, **Iurdan**! Besarkada estu bat Durangotik. Asko maite zaitugu!



Maiatzaren 1ean **Lukenek** sei urte egin zituen. Zorionak Elorrioko aitxitxa, amama eta izeko Eneritzen partez. Asko maite zaitugu eta besarkada handi bat gure mutilari.



Etxeko neskatilak 11 urte egin zituen atzo. Zorijonak, **Izar**, familiakoen partez. Musu handi bat!



Zorionak, **Nahia**! Gaur 11 urte egiten dituzu, neska handi! Ondo pasa eguna eta disfrutau topera asteburuko ospakizunekin. Muxu eta besarkada potoloa familia guztiaaren partez.

Eguraldia		
ZAPATUA 🌧️ 13° / 26°	ASTELEHENA 🌧️ 12° / 24°	EGUAZTENA 🌧️ 9° / 15°
DOMEKA 🌧️ 13° / 20°	MARTITZENA 🌧️ 10° / 17°	EGUENA 🌧️ 9° / 15°



KULTUR AGENDA

Mikel Markez - Andikoako Santutegian
Bertso saioa- Nerea Ibarzabal eta Andoni Egaña (Andikoa Asentzio Jaiak 2024)
75 puñaladas - Kultur Etxea

Maiatza 10, 20:00
Maiatzak 11, 19:30
Maiatzak 25, 19:00



HAURRENTZAKO IPUIN KONTALARIAK



MAIATZAK 17
DORLETA KORTAZAR
"Egin putz, fuuu"
"Zaku bete ipuin"

🕒 17:00 3-5 urte
🕒 17:45 6 urtetik gora



Sarrera gonbidapenarekin

"Amak kortse denda zabaldu zuenean gertaera handia izan zen"

Durangoko Zubizarreta barruko arropa dendak ateak itxiko ditu datorren ekainean; orain 104 urte zabaldu zuen denda Angel Zubizarretak, Arantza Ondaroren aititak



Arantza Ondaro Zubizarreta
Dendaria
DURANGO | 1957

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Arantza Ondaro orain 46 urte hasi zen beharrean bere aititak zabalduriko negozioan. 1920an zabaldu zuen denda, eta bertan lan egin duen hirugarren belaunaldia da Arantza; aurretik, amama Anastasiak eta ama Itziarrek eroan zuten Durangoko tradizio handiko denda.

Zubizarretaren dendaosteak historia luzea gordetzen du.

Bai. Aititak orain 104 urte zabaldu zuen denda; janaria saltzen zen, eta baita ere oihalak, esku-oihalak, mahai-zapiak, izarak, mantak, galtzerdiak... Denerik. Baina Du-

rango bonbardatu zutenean etxea jausi egin zen. Aitita eta amama exiliatuta egon ziren Frantzian, hiru urtez, eta bueltatu zirenean amama baserririk baserri ibili zen saltzen, 1945ean denda berriro zabaldu zuten arte. Aitita hil zenean, amak hartu zuen dendaren ardura, 1967an. 74 urte gaz jubilatua zen.

Amak bigarren denda bat ere zabaldu zuen albo-alboan, 1971n.

Bai, kortse-denda zabaldu zuen, eta herri osoak burla egin zion. Gertaera handia izan zen herrian. Ama oso emakume aurreratua zen bere sasoirako. Erakusleihoan bularretakoak, kuleroak... ipintzen zituen.

Harrigarria zen orduan, eta asko ez zeuden ados. Nik 14-15 urte nituen, eta denerik entzuten genuen. Orduko abade batek esan zion infernura joango zela. 2005era arte denda biak izan genituen; gero, batean batu genuen jenero guztia.

Denda honetan jaio zinen zu.

Bai, goiko etxean. Eta dendan hazi nintzen. Sasoi batean, lokalaren erdia denda zen, eta beste erdia sukaldea. Goian lo baino ez genuen egiten. Sukalde hartan, amamak gosaltzen ematen zien inguruko herrietatik astoagaz etortzen ziren emakumeei, eta josten ere jarduten zuten dendaoste hartan.

Ekainean ateak itxiko dituzu. Zeintzuk sentsazio sortzen dizkizu horrek?

Beti pentsatu dut denda bizirik utziko nuela, amak eta amamak hori merezi dute eta! Eta pozik nago. Pena ere badut, nire familiako ziklo bat itxiko dudalako. Gainera, uste dut askok maite dutela denda hau. Nagusienek gogoan dute amama, eta, batez ere, ama. Norbaiti tokatu behar zaio zikloa ixtea; neu izan naiz.

Aurrez aurre duzuen Elcar burdindegiak ere ateak itxiko ditu. Alde Zaharrean hutsunea igarriko da. Erosketa ohiturak aldatu egin dira?

Betiko dendak gara eta igarriko da, bai. Baina normala da. Zikloak itxi egin behar dira. Neure bidea egin dut eta orain beste batzuei tokatzen zaie. Ohiturak aldatu egin dira, baina hurbileko negozioa gara, beste toki batzuetan konponbiderik ema-

Uste dut askok maite dutela denda hau. Nagusienek gogoan dute gure amama, eta, batez ere, ama

ten ez dieten arazoei irtenbidea ematen diena. Horrelako dendak beharrezkoak dira. Hori bai, beti esan dut hau ez dela Lourdes (barrez). Ikusi eta ikutu egin behar diren arropak saltzen ditugu, probatu beharrezkoak... Aholku bila ere badator bezeroa, eta askok dute konfiantza gudan. Horixe gura dute gehienek, atentzioa.

Baduzu ezer esatekorik bezeroei?

Eskerrak eman gura dizkiet. Konfinamendua ziurgabetasun handiagaz bizi nuen, negar mordoa egin nuen. Baina berriro zabaltzerakoan jende mordoa etorri zen. Maitatuak sentitu ginen, enpatia handia sentitu genuen. Izan ditugu gure errietak, baina oso pozik nago egindakoagaz. Beti gustatu izan zait nire beharra.

Eta zer egingo duzu orain?

Lehenengo, deskantsatu. Gauzak egin gura ditut. Niretzat denbora gura dut, niretzat eta nire familiarrentzat. Ordu asko zor diet.

Lauhortza

Bixente Aizpurua
Eguren
Irakaslea/Jubilatua



Zu gehiago!

Gure ume garaian haserre-tzen ginenean "zu gehiago!" lelo honekin bukatzen genuen gure eztabaida. Esamolde hori berriz modan jarri da politikari eta goi mailako ardurak dituztenen artean, baina guk horrekin amaitzen bagenuen gure desadostasuna, honeek erre eta erre jarraitzen dute denon buruak haunditu arte.

Hemen inork ez du parkamenik eskatzen, ezta lotsatzen ere. Batzuek besteen ezbeharren kontura dirutzak egiten dituzte komisioak direla eta, adibidez maskarillekin. Beste batzuek denon dirua den arloetan sakelak betetzen dituzte, esate baterako futbol federazioan. Beste zenbaitek beraien lagunei ematen diete obrak egiteko aukera eta zati bat gordetzen dute.




Horren aurrean inork ez du dimititzen eta zenbait kasutan txalotu edo justifikatu egiten dituzte lapurretak horiek.

Espainiako Parlamentu edo Senatuan eta gauza bera Komunitate Autonomo askotan politika garbia eta eraikigarria egin beharrean gero eta astakeria haundiagoak esaten dira. Oso gutxi egiten dituzte kritika konstruktiboak, dena da besteena zapaltzea. Non dago koherentzia, non dago edukazioa?

Zer-nolako irudi tamalgarrria ematen duten! Honelako politikari eta agintariekin ez da harritzekoa gure dirua beraien onerako zakuratzeta.

Ni oso baikorra naizenez eta politikari onak ere badaudenez, espero dut hurrengo hauteskundeetan politikari on eta zuzenen maila igotzea.

Hala bedi!



**SAN ROKE
BARRIA**

2. fasea salgai

2 logela, **garajea barne**
235.000 € ^{-TIK} _{+BEZ}

3 logela, **garajea barne**
295.000 € ^{-TIK} _{+BEZ}

Erreserbatu
hitzordua hemen:
www.sukia.com

SALMENTA BULEGOA
Astxiki Kalea, 1. Durango

946 462 041

sukia
Zure etxean zaude Estás en tu casa